



**Docentiaz**

**DOCENTIAZ**  
**IRAKASLANA**  
**EBALUATZEKO PROGRAMA**

**Ikastegietako Kalitate Batzordeek DOCENTIAZ  
programari buruz egindako iritzi inkestan  
oinarritutako txostena**

**2021eko azaroa**

erren ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ERALDAKETA DIGITALAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y COMUNICACIÓN

EBALUAZIO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN



## SARRERA

DOCENTIAZ programa, gaur egun ANECA eta UNIBASQ kalitate-agentziek ziurtatua, UPV/EHUko irakasleen irakaslana ebaluatzeko programa bat da.

DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaslanari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakaslanaren zenbait alderdiri buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako azken txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren hamaikagarren deialdia 2021eko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutaraziz, eta, 2021eko irailean amaitu zen.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak (hemendik aurrera IKB) DOCENTIAZ programan parte hartzen duten bere ikastegiko irakasle bakoitzaren txosten labur bat egin behar du. Txosten hori telematikoki bete zen 2021eko martxoaren 22tik apirilaren 21era bitartean.

IKBk egindako txostenean, ikastegiko irakasleen lanaren honako alderdi hauei buruzko informazioa emateko eskatzen zaie:

- I. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena: irakasleak aurkeztutako ikaslearen gidan deskribatutako gaitasunak titulaziokoekin eta irakasgaiarako zehaztutakoekin bat datozen eta ikasketa planeko irakaskuntza modalitateen aurreikuspenari erantzuten dioten egiaztatu behar da.
- II. Emaitzak: irakasleak hautatutako irakasgaiaren arrakasta tasak aurkezten dira, baita *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta ere*, Kalitate Batzordeak datu horiek dagokien testuinguruan koka ditzan.
- III. Irakaskuntzaren koordinazioa: eskatzen da erantzutea ea ondo egin den, eta eragin positiboa izan duen arrakasta tasetan eta ikasleek duten irakasgaiari buruzko iritzian.

Jarraian, IKBetako kideei egindako galdetegi batetik lortutako emaitzak ageri dira. Galdetegia bide telematikotik erantzun zen, anonimoki, eta galdetegia bidali zitzaient IKBetako 227 kideetatik 86k erantzun zuten; hau da, % 38k.



## INFORMAZIOAREN AZTERKETA

Jarraian, deialdi honetan parte hartzen duten irakasleak dituzten ikastetxeetako kalitate-batzordeetako kideei zuzendutako galdera-sortaren bidez jasotako erantzunen emaitzak laburbiltzen dira; erantsitako informazioan – Lortutako erantzunak – Item bakoitzean lortutako ehunekoak kontsulta daitezke, balorazio-eskalaren balioen arabera.

IKBk bete beharreko **lehenengo atalari** dagokionez, **“Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren Plangintza eta Garapena”**, % 76 nahiko edo erabat ados daude Batzordeak egiaztatu egin behar duela irakasleek aurkezturiko Ikasleen Gida ote datorren bat tituluan ezarritako ildoarekin, eskatutako gaiaren gaitasunekin, eta ikasketa planen irakasteko modalitateei erantzuna ematen dien. % 11 ez daude oso edo batere ados IKBk atal honetan iritzia ematearekin. Bestalde, % 76k uste du atala erraz betetzekoa dela.

**“Emaitzak” bigarren atalari** dagokionez:

- % 56k uste dute IKBk aztertu egin behar dituela irakasleen arrakasta tasak eta taldeko/mailako batez-bestekoaren artean egon litezkeen aldeak; % 22 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 22 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. % 68ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.
- % 63ren ustez, IKB-k baloratu egin behar ditu ikasleen iritzi-inkesten emaitzetan, irakasleen eta irakasgaiaren, Titulazioaren eta Sailaren txostenaren artean egon daitezkeen desadostasunak. % 21 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 16 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. Bestalde, % 67ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.

**Hirugarren atalari** dagokionez, **“Irakasleen garapen profesionala”**, IKBk betetzen duen azken atala, % 60k uste du egokia dela IKBk atala betetzea, eta beste % 21ek berriz, uste du ez duela zertan bete. Gainerako % 19 zalantzan daude. Bestalde, % 46rentzat erraza da atal hori betetzea.

Azkenik, % 79k Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak eskainitako arreta egokia izan dela uste du.

Emaitzei erreparatuta, hau ondoriozta daiteke: % 64 inguruk uste dute egokiak direla IKBak bere txostenean bete beharreko atalak, eta, % 64ren ustez erraz bete daiteke atala. Txosten bakoitza egiteko erabilitako denborari dagokionez, erantzun nagusia 30-45 minutukoa izan zen.

erren ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



ERALDAKETA DIGITALAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y COMUNICACIÓN

EBALUAZIO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN

**Eranskina:  
Jasotako erantzunak**




## Docentiaz Programaren dimentsio bakoitzari dagozkion ehuneko grafikoak






### 3. Dimentsioa




### 9.itema Adierazi txosten bakoitza egiteko erabilitako batez besteko denbora:






### 11. itema Ebaluazio Zerbitzuko langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei.







Ehuneko grafiko orolorra (DOCENTIAZ dimentsioak)



|                            | 11. itema   | 8. itema  | 7. itema   | 6. itema  | 5. itema   | 4. itema  | 3. itema   | 2. itema  | 1. itema  |
|----------------------------|---|---|--|---|--|---|--|---|---|
|                            | Ebaluazio Zerbitzuko langileek behar bezala erantzun diete egindako galderak. | 3. Dimentsioa "Irakaskuntzaren koordinazioa": atal hau betetzea erraza izan da. | 3. Dimentsioa "Irakaskuntzaren koordinazioa": Ikastegiko Kalitate Batzordeak betetzea egokia da. | 2. Dimentsioa "Ikasleentzako iritzi inkestan jasotako emaitzak": atal hau betetzea erraza izan da ikasleek duten iritzia, aplikazioaren ingurunean, esuragarri dagoenez gero. | 2. Dimentsioa "Ikasleentzako iritzi inkestan jasotako emaitzak": egokia da ikastegiko Kalitate Batzordeak atal honi buruzko txostena ematea. | 2. Dimentsioa "Arrakasta Tasak": atal hau betetzea erraza izan da arrakasta tasak, aplikatiboaren ingurunean, esuragarri daudenez gero. | 2. Dimentsioa "Arrakasta Tasak": egokia da ikastegiko Kalitate Batzordeak atal honi buruzko txostena ematea. | 1. Dimentsioa: dimentsio honetan egiten diren galderei erantzutea erraza izan da aplikatiboaren ingurunean, ikaslearen Gida eta Irakaskuntza Gida esuragarri daudenez gero. | 1. Dimentsioa: egokia da ikastegiko Kalitate Batzordeak irakaskuntza plangintzari buruzko txostena ematea baita ea irakaskuntza-ikasuntza prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibidekin bat datorren ala ez ere. |
| Ez nago batere ados        | 2   | 11  | 11   | 5   | 10   | 4   | 11   | 1   | 2   |
| Ez nago ados               | 3   | 19  | 10   | 11  | 11   | 11  | 11   | 4   | 9   |
| Gutxi gorabehera ados nago | 16  | 24  | 19   | 17  | 16   | 17  | 22   | 19  | 13  |
| Nahiko ados nago           | 35  | 30  | 32   | 35  | 36   | 41  | 38   | 49  | 44  |
| Erabat ados nago           | 44  | 16  | 28   | 32  | 27   | 27  | 18   | 27  | 32  |

■ Ez nago batere ados 
 ■ Ez nago ados 
 ■ Gutxi gorabehera ados nago 
 ■ Nahiko ados nago 
 ■ Erabat ados nago